



UNITATEA	EUSKARA ETA HEZKUNTZA
XEDEA	2023KO DIRULAGUNTZAREN HITZARMENA SINATZEA
ORDEZKARIA	MIKEL BELAR IMAZ
TITULARRA	EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatu Garbiñe Marzol Ormazabalena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Zinegotzi delegatuak, 2023ko irailaren 11n, 2023/2060 Dekretuaren bidez, besteak beste erabaki hauek hartu zituela Euskalgintzaren Kontseiluaren dirulaguntzaz:

1. 2023ko udal-aurrekontuan jasotakoaren arabera, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari 5.000 euroko dirulaguntza ematea, eta laguntza hori arautzen duen lankidetzaz-hitzarmena onartzea.
2. Dirulaguntza bideratzeko hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA.- Hitzarmenean adierazi zela noiz ordainduko zen dirulaguntza: % 75, hitzarmena sinatzean; % 25, dagokion zuriketa aurkeztu eta organo eskudunak onestean.

KONTUAN HARTURIK

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bete dituela hitzarmenean jasotako helburuak, eta behar bezala justifikatu dituela egindako gastuak.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak aurkeztutako justifikazioa ontzat jo dutela Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak eta jarduneko kontu-hartzaileak.

2023/1718 Alkatetza Dekretuaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako ebazpena ematea: Euskara eta Euskaltegia Azpisaila.



TOLOSAKO
UDALA

2023DO200033

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari ordaintzea dirulaguntza izendunetik jasotzeko daukan zatia, zenbateko osoaren % 25, 1.250 euro, 2023ko udal-aurrekontuko 0900.481.15.33510 partidaren kargura.

BIGARRENA.- Erabaki hori jakinaraztea Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluari, Euskara eta Hezkuntza Sailari, eta Kontuhartzailtzari.

HIRUGARRENA.- Iragarkia Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igortzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Dirulaguntza hau gardentasun atarian argitaratzea.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA



2023DO200033

Garbiñe Marzol Ormazabal

Begoña Garmendia Vazquez



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023DO200021-Kontseilua dekretua ordain/Kontseilua dekretua ordain ()